

Euskadiko filmategia, Joxean Fernandez

Hemen daukazu Filmategiko zuzendariari, Joxean Fernandezi, egindako elkarrizketa. Irakurri eta esan ondorengo esaldiak egia ala gezurra diren.

Joxean Fernandez (Donostia, 1973) Euskadiko Filmategiko zuzendaria da. Nanteseko Unibertsitatean irakaslea zen eta, Filmategiko zuzendari izateko, 2010eko abenduan, eszedentzia bat hartu zuen. Bera Historia Garaikidean eta Zinemaren Historian aditua da, eta "Cine y Guerra Civil en el País Vasco" (1936-2006) doktore-tesia egin zuen. Filmategia 1978an sortu zen eta, orduz geroztik, Donostiako eraikin batean izan du egoitza, baina materialak beste eraikin batzuetan egon dira barreiatuta. 2015eko azarotik Donostiako tabakaleran dago, eta bertan artxiboak eta bulegoak ditu. Beste hainbat erakunde ere leku berean daude: Donostiako Zinemaldia, Kutxa Fundazioa, Etxepare Institutua eta Tabakalera bera, besteak beste. Etorkizuna, helburuak, zinemaren funtzioa euskal gizartean, ikusle-motak eta beste hainbat gairen inguruan hitz egin dugu berarekin.

Euskadiko Filmategia tabakaleran dago orain. Amets bat bete da?

Amets bat bete da, zalantzarik gabe. Ametsa eraiki eta landu egin behar dugu, baina bai, ametsa bete egin da azkenean.

Etxepare Institutua, Zinemaldia, Filmategia, Kutxa Fundazioa... guztiak tabakaleran zaudete. Elkarlana egongo da?

Zalantzarik gabe. Nire ustez, Zinemaldiaren, Etxepare institutuaren, Tabakaleraren eta gure artean elkarlana beharrezkoa da. Elkarlana da bidea, eta beste erakundeetako arduradunek ere gauza bera esango dute. Denok ados gaude.

Zer jasoko du kaleko jendeak?

Tabakalera herritarentzat oso eraikin handia da, nire ustez. Orain ezagutzen ari dira, baina, aurrera begira, komunikazio-lan handia egin behar dugu. Guk hemen zinema-areto bat daukagu, eta ia astero filmak eskainiko ditugu. Gainera, beste erakundeek ere hainbat gauza eskainiko dituzte: erakusketak, zinema, antzerkia...

Zinemaren kasuan, ikusle adituak ala kalekoak izango du garrantzia?

Biek izango dute garrantzia, ikusle adituek eta ikusle arruntek. Zinemazaletasuna aprobetxatu behar dugu, nire iritziz. Donostian, eta Gipuzkoan orokorrean, badago zinemazaletasuna eta hortik jo behar dugu. Hau da Filmategiaren egoitza berria, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa.

Gipuzkoaz gain, hemendik kanpo ere programazioa egin nahi duzue?

Bai, zalantzarik gabe. Azaroan hasi ginen hemen, Donostian; abenduan Donostian eta Bilbon; eta etorkizunean, ahal bada, Euskal Herri osoan. Konplexua da, baina horixe da gure helburua. Programazio orokorra izateko, dinamikak aldatu behar dira.

Zikloak, emanaldiak, seminarioak, ikusle adituak, ikusle arruntak... Zer ematen dio zinematik gizarteari?

Gauza asko. Victor Ericcek esan zuen: "Zinema da XX. mendeko artea", eta ni ados nago. Zinema oso garrantzitsua izan da XX. mendean, eta espero dut XXI. Mendean ere horrela izatea. Ez baduzu euskal zinemari buruzko hausnarketa egiten, ezin dugu Euskal Herriko historia, kultura, hizkuntza ... ulertu. Nire ustez, gure zinema oso interesgarria da, eta lehen ere halaxe izan da: industria, kultura edo nortasun nazionalaren zati bat. Horregatik, nire iritziz, gogoeta bat egin behar dugu euskal zinemaren inguruan.

Ainara Loiarte

Hiztegia.

eraiki; construir

erakunde; organismo

eraikin; construcción

hausnarketa; reflexión

barreiatu; dispersar, desperdigar

	EGIA	GEZURRA
1978. uertetik aurrera, Joxean Fernandez Euskadiko Filmmategiko zuzendaria da.		
Donostiako Filmmategia ez da Tabakaleran dagoen erakunde bakarra.		
Joxeanen ustez, erakundeen arteko elkarlana ezinezkoa izango da.		
Tabakalera ez da hain handia herritarrentzat.		
Ikusle- mota guztiek garrantzia bera izango dute.		
Helburua Filmmategia Euskal Herri osora zabaltzea da.		